



MVP lehiaketaren oinarri arautzaileak

- 1. Lehiaketaren esparrua eta prozedura.** Real Sociedad de Fútbol SAD (aurrerantzean, Real Sociedad) elkartearen produktu ofiziala da *MVP*. Elkartearen web-orri ofizialeko *MVP* atalaren bidez parte hartzen da. Akordio honetan jasotako baldintzen arabera erabiliko da beti, eta zerbitzuarekin lotura zuzena duten arauak kontuan hartuz. Real Sociedad elkartearen lehiaketa erabiltzeak esan nahi du baldintza guztiak onartzen direla.
- 2. Lehiaketaren xedea.** Ligako partida bakoitza bukatutakoan, eta elkartearen web-orriko *MVP* atalaren bidez, jarraitzaileek partidako jokalaria txuri-urdin onena hautatu ahal izango dute Realak aurrehautatutako hiruren artetik. Zale bakoitzak behin bakarrik bozkatuko du, eta web-orrian erregistratuta egon beharko du horretarako. Hilero, hil horretan boto gehien jaso dituen jokalaria sinatutako kamiseta bat zozketatuko da. Kamiseta honez gain, hautesle irabazleak BM Supermerkatuak kolaboratzailearen eskutik 100€-ko erosketa karro bat jasoko du BM edozein dendatan erabiltzeko. Hil horretan jokatu diren ligako partida guztietan botoa eman duten jarraitzaileek parte hartuko dute zozketan.
- 3. Bozketa.** Jarraitzaile guztiek eman ahal izango dute botoa jokalaria bakoitzaren fitxan agertzen den “bozkatu” botoia sakatuz. Partida amaitutakoan bozkatu ahal izango da, elkarteak atala eguneratu eta hiru jokalaria hautatutakoan. Bozketan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da web-orrian erregistratuta egotea. Jarraitzaileek bozketen rankinga nola doan ikusi hala izango dute.
- 4. Sari-banaketa.** Reala arduratuko da zuzenean saria irabazleari helarazteaz. Elkartea harremanetan jarriko da irabazlearekin web-orrian erregistratzean emandako e-mail helbidearen bidez. Web-orrian erregistratzean, izen-abizenak, NAN zenbakia, jaiotze-data eta telefono-zenbakia eskatuko zaizkio.
- 5. Lehiaketatik kanpo geratzea.** Lehiaketatik kanpo geratuko dira oinarriak betetzen ez dituzten parte-hartzaileak, edo sustapen hau neurriz kanpo edo iruzurrez erabiltzen dutenak. Real Sociedad de Fútbol SAD elkarteak erabiltzaile jakin bat alde bakarrez blokeatzeko eskubidea izango du, eta akordio hau berehala amaitzekoa. Erabiltzaile batek ezin du behin baino gehiagotan bozkatu partida bakoitzeko.



- 6. Saria.** Saria hil horretako jokalaria sinatutako kamiseta bat eta BM Supermerkatuak kolaboratzailearen eskutik jasotako 100€-ko erosketa karro bat izango da, BM edozein dendatan erabiltzeko. Hil horretan jokatu diren ligako partida guztietan botoa eman duten jarraitzaileen artean egingo da zozketa.
- 7. Irabazlea.** Erabiltzaileak emandako helbide elektronikoaren bidez jarriko da elkartearen harremanetan irabazlearekin.
- 8. Klausula gehigarriak.** Realak sustapenaren oinarriak aldatu ahal izango ditu, partzialki edo osoki, edozein unetan. Halaber, sustapenean irregulartasunen bat ikusiz gero, saria baliogabetzeko, hutsik uzteko edo atzera botatzeko eskubidea izango du, oinarri hauetan jasotako moduan gauzatzea eragozten duen bidezko arrazoiren bat edo ezinbesteko arrazoiren bat badago. Realak ikusten badu erabiltzailearen batek iruzurrez erabiltzen duela lehiaketa hau, edo modu desleialean lehiatzen duela gainerako parte-hartzaileekin, haren parte-hartzea bertan behera uzteko eskubidea izango du. Realak bertan behera utzi ahal izango du sustapena, behin betiko edo denbora batez, betiere ezinbesteko arrazoiak, aurreikusitako gabeko edo aurreikusitako ezin diren egoerak edo iruzurra direla medio. Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du erabiltzaileak oinarri arautzaile hauek guztiak onartzen dituela.
- 9. Datuen babesa.** Erabiltzaileak aplikazioaren bidez emandako datu pertsonalak isilpean gordetzen dira Real Sociedad de Fútbol SAD elkartearen ardurapeko fitxategi batean, eta bide elektronikoz edo sms bidez Realak edo haren Fundazioak eta babesleek gauzatzen dituzten jarduerari eta kanpainei buruzko publizitatea eta informazioa bidaltzeko soilik erabiltzen dira. Sustapenean parte hartzeak oinarri hauek espresuki eta baldintzarik gabe onartzen direla esan nahi du. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan (abenduaren 13ko 15/1999) xedatutakoarekin bat, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzeko, idazki bat igorri behar da Real Sociedad de Fútbol SAD elkartearen egoitza sozialera, honako helbide honetara: Anoeta pasealekua 1 zk, 20014, Donostia, Gipuzkoa, Espainia.